



## EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAREN ALDEKO ADIERAZPENA

**Covid-19aren** pandemia **eragin sozial, sanitario eta ekonomiko** handia izaten ari da gizartearengan, bereziki egoera zaurgarrian dauden pertsonengan; baita ere haien eskubideak babesten eta defendatzen diharduten erakundeetan.

Covid-19ak ere aurrekaririk gabeko ondorio negatiboak eragin ditu **pertsona zaurgarrienengan**. Arazo horiek ez ziren ezezagunak, baina pandemiak larriagotu ditu, hala nola arrakala digitala, etxean arreta falta izatea, nahi gabeko bakardadea, enplegua galtzea, etxebizitza bazterketari lotutako arazoak edo pobrezia areagotzea.

Pandemia hori **eragin handia izaten ari da Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeetan**. Aldaketa handiak egin behar izan dituzte zerbitzuetan eta jardueretan: erakunde askok zerbitzu berriak egokitu, itxi edo sortu behar izan dituzte pandemia hasi zenetik.

Egoera horren aurrean, adierazpen hau sinatzen dugun pertsona eta erakundeok, **babestu egiten ditugu** Sareen Sarearen [Estrategian jasotako Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren proposamenak](#), Covid-19ren inpaktuaren aurrean. Nabarmentzekoak:

- Babes soziala behar duten pertsona guztiek **gizarte-prestazioak jasotzeko sarbide egokia** izatea. Ezinbestekoa da zailtasun handienak dituzten pertsonen eta familien beharrak asetzea.
- Pandemiaren ondorioei aurre egiten lagunduko duten neurriak martxan jartzea, **garapen sozial eta ekonomiko bidezkoagoa, iraunkorragoa eta berdinzaleagoa** lortzeko.
- **Erakunde sozialei beharrezkoak diren baliabideak ematea, Covid-19aren inpaktuari aurre egin ahal izateko**. Ezinbestekoa da oinarri sendo bat finkatzea, gizarte-ekimeneko erakundeek etorkizuneko egitura ekonomiko egonkor eta nahikoa izan dezaten, milaka pertsonari arreta ematen jarraitzeko, berme eta kaudimen maila berdinarekin.

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeak funtsezkoak gara eta krisialdi honetan erantzun eraginkorra emateko daukagun gaitasuna erakutsi dugu. Kanean lan egiten dugu, pandemiak sortutako arazoen benetako ondorioak ezagutzen ditugu eta funtsezkoak gara irtenbideak bilatzeko; baina baliabideak behar ditugu hori egin ahal izateko.

**Laguniezaguzu zure sinadurarekin gizarte bidezkoagoa eta berdinzaleagoa eraikitzen. Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala gara.**